



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-03-13**

VIURTEA 1.385.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Eusko Labeldun Arkumearen jaia, Tolosa Gourmeten eskutik

TOLOSA Aurreko urteetako arrakasta ikusirik, hilaren 19tik 23ra bitarte Zerkausia jatetxe bilakatuko dute

MENUAK Eskualdeko hainbat jatetxek hartuko dute parte jakiak osatzeko; sarrerak salgai daude 40 eurotan 5

Xurdin ipotxaren azken abenturak ikusteko aukera paregabea etzi, kiroldegian

LEITZA 18:00etan, azken lanean bildutako abestiak eskainiko dituzte 7

Herriari buruzko liburuaren aurkezpena herritarrentzat

AMEZKETA 20:00etan izango da udaletxean; Joxe Mari Otermin da egilea 6

Unai Onsalok txapela lortu du Euskadiko Kluben arteko Txapelketan

TOLOSALDEA Ohorezko senior mailan gailendu da 6

Zabalik da 'hitza.info' informazio leiho berria 3



Zea Mays taldeak zuzenekoa eskainiko du etzi Bonberenean; «gure musika eramaten dugu lasaigarri edo morfina moduan» dio Aiora Renteria abeslariak. HITZA

ETZI, 'MORPHINA' ZEA MAYS-EN AZKEN LANA BONBERENEAN 2

Taberna - Jatetxea

Zaharren Biltokia

- Eguneko menuak
- Karta
- Bazkari bereziak (ospakizunak)
- Aste santuan zabalik

Bihar ostirala, 14 BARRIKOTEA
Menua 13€ sagardoa barne

Tel.: 943 69 26 32 Mikel Deuna plaza, 8 • IRURA

ARRATZAIN TOLARE SAGARDOTEGIA

Egunero irekita
www.agroturismoarratzain.com
info@agroturismoarratzain.com
Arratzain Zahar Baserria • Tel.: 943-36 66 63
20170 USURBIL

E **Elkarrizketa****AIORA RENTERIA** › Zea Mays taldeko abeslaria

Musika › Zea Mays bere azken lana aurkeztuko du etzi Bonberenean; beraiekin batera izango dira eskenatokian, Zein taldekoak; bezperan berriz, S.A.koak.

ESTI EZEIZA

Ezbairik gabe asteburu indartsua izango da oraingoa Bonberenean. Hasteko, bihar, S.A. talde arabarra ariko da 22:30etik aurrera. Etzi berriz, Zea Mays eta Zein taldeek eskainiko dute kontzertua, garai berean. Hamar urte eta bost disko kaleran, hori da Zea Mays euskal musika taldearen ibilbide oparoa. Orain, hamabi kantuz osatutako beraien azken lana kaleratu dute, *Morphina*. Gainera, diskoarekin batera, opari berezi bat eman nahi izan diete jarraitzaileei, azken hamarkada hau biltzen duen DVDa hain zuzen ere. Azken argitalpenaz eta taldearen ibilbideaz mintzatu da Aiora Renteria abeslaria.

Zein min lasaitu nahi duzue zuek, morfinaarekin?

Ikusita, munduak memento honetan daraman erritmoa, eta telebistetako albistegietan agertzen diren gauzak, lasaigarri bat eskatzen dugu gure bizitza aurrera eramateko. Horrelako zerbait da guretzat morfina. Horregatik, gure musika eramaten dugu lasaigarri edo morfina moduan. Dauden gauzak ikusita, lasaitzeko eta hortik kanpora ateratzeko.

Eraginkorra al da zuentzat morfina hori?

Nire ustez bai. Guretzat behintzat oso baliagarria izan da gure sentimenduak lasaitzeko. Horregatik uste dugu, jende askorentzat izango dela baliagarria.

Soinu eta estilo aldaketak nabari dira azken disko honetan. Zeintzuk dira hala ere, diferentzia nabarmenenak?

Lehenengo eta behin, abestiak desberdinak dira besteekin konparatuz. Gu beti saiatu izan gara

Diskoetxearekiko hurbiltasuna bilatzen genuen, pentsakera nahiz estilo aldetik

Guretzat perfektua zen DVDa opari gisa ematea Zea Mays gustukoa duten horiei

diskotik diskora aldaketak egiten, eta honekin ere lortu dugu, gure gaur egungo eguneroko horretara eramaten kantua. Esaterako, duela bi urte musika estilo ezberdinak entzuten genituen eta talde ezberdinak ezagutzen genituen. Beraz, aldaketa hori diskoan ere isladatzen da. Hori dela eta, aldake-



HITZA

«Gure musika eramaten dugu lasaigarri edo morfina moduan»

tarik nabarmenenetakoa da, musika eta estilo aldetik abestiak ezberdinak direla. Bestetik, estudioa aldatu dugu eta ondorioz, soinu aldaketa egon da. Oraingo disko hau, Mungian, Lamina ekoi ztetxean egin dugu. Ondorioz, askozaz ere argiagoa da eta zabalagoa.

Azken lan hau Bonberenearekin ekoiztu duzue, zergatik aukeratu duzue hau?

Bost disko grabatu ditugu, eta lau diskoetxe ezberdinetan egin ditugu.

Beti gure lekua aurkitu nahian ibili gara. Horregatik, orain, Bonberenea toki onena izango zela erabaki genuen. Diskoetxearekiko hurbiltasuna bilatzen genuen, pentsakera nahiz estilo aldetik. Hala, Bonberenea da memento honetan gertuen dagoena gure pentsatzeko modutik. Gainera, lagunak dira eta gure ustez, lan polita egitea lortu dugu.

Diskoarekin batera, opari gisa, 2005ean Bilboko Kafe Antzokian

grabaturako DVDa kaleratu duzue.

2005ean kontzertu bat eman genuen, eta grabatu egin genuen. Egun horretarako prestatuta genuen kontzertua berezia zenez, grabatzea erabaki genuen. Gero, denbora pasa eta gero, pentsatu genuen, disko berriarekin batera lekua izan zezakeela, 2007aren amaieran gure 10. urteurrena ospatzen baikenuen. Guretzako perfektua zen DVD opari gisa ematea

Zea Mays gustukoa duten horiei. Bertan, Kafe Antzokian emandako kontzertuaz gain, gure ibilbidean eskainitako beste batzuk ere agertzen dira, ikusteko, taldearen eboluzioa.

Hamar urte hauen zein balorazio egiten duzu?

Oso balorazio baikorra egiten dut. Izan ere, hamar urtetan bost disko grabatu ditugu, eta taldekide berdinek jarraitzen dugu, ez da aldaketarik egon. Horregatik, oso hunkigarria da. Batera jarraitu nahi dugu, gustura gabiltz, lagunak gara eta beti aurrera begira gaude.

Zertan nabari da hamar urteko esperientzia hori?

Morphina eta musika guretzat behintzat oso baliagarria izan da gure sentimenduak lasaitzeko

Beti saiatu izan gara diskotik diskora aldaketak egiten eta honekin ere lortu dugu

Nagusiki, esperientzian. Askozaz ere entsegu gehiago egiten ditugu eta ondorioz, jotzeko moduan ikusten da, aldatu eta hobetu egin gara. Abestiak egiteko garaian ere badakigu nora jo eta nondik lortu nahi duguna. Denborak ematen dizuna da esperientzia. Gainera, pertsona berdinak egonda, hobeto ezagutzen gara, eta errazagoa da lan egitea.

Zuen lehendabiziko kantua berriro entzutean, zer sentitzen duzue?

Guretzat oso onak dira. Aurreneko disko bat da, eta memento horretan genuen esperientziarekin egin. Orain ez genituzke horrelako abestiak egingo. Gure disko guztiak entzuten ditugu eta memento horretan pentsatzen dut, soinu ez zaidala gustatzen, edo beste modu batera egingo nukeela. Baina genituen urteak eta esperientzia ikusita, oso ongi daudela iruditzen zait.

Azken disko honetan, zuen ibilbide laburtzen duen kantu bat egin duzue, Bost hamar izenburupean. Gure ibilbidearen laburpen bat da kantua: bost disko eta hamar urte. Hitz gutxitan egiten dugun laburpen bat da, oso zaila baita hamar urte bost minututan defintzea. Hala ere, kantu horrekin lortu dugula uste dut.

Etzi aurkeztuko duzue zuzenean, zuen azken disko hau, gogotsu egongo zarete?

Bateri-joleak haur bat izan du, eta horregatik diskoa atera arren, beranduago hasi nahi izan dugu zuzenekoekin. Arraroa egin zaigu diskoa kalean egotea, eta guk kontzerturik ez eskaintzea. Horregatik, entseguak egiten ditugu eta nahiko urduri gaude, eta sentipen arraroekin. Esperientzia berria baita itzaroten egotea. Dena den, etzi iada gainean da, eta pozik nahiz urduri gaude.



Donostiako Doka kafe antzokian aurkeztu zuten atzo 'www.hitza.info'. HITZA

Euskalgintzako eta hedabideetako hainbat ordezkarri elkartu zen atzo arratsaldean Donostiako Doka kafe antzokian, 'www.hitza.info' webgunearen aurkezpenean.

Zabalik da 'www.hitza.info'

ERREDAKZIOA

Atzo arratsaldean aurkeztu zuten www.hitza.info, zazpi Hitzen edukiak eta herri informazioaren inguruan lanean ari diren beste hainbat komunikabideren albisteak biltzen dituen webgune berria.

Aurkezpen ekitaldiak euskarazko prentsan lanean ari diren hainbat lagun bildu zituen Donostiako Doka kafe antzokian, euskalgintzako zenbait ordezkarirekin batera. Bertan ziren, besteak beste, HITZA egunkarietako zuzendariak, blogariak edota azken urteotan euskara eta teknologia berriak uzartzeko ahaleginean aritu diren hainbat lagun.

«Egindako lanaren segida»

Bertako Hedabideetako Iban Arregik nabarmendu zuenez, «Hitzen webguneek orain arte egin duten lanaren segida da hitza.info, herri informazioaren bilgune izan nahi duena. Kazetaritza egiteko garai berrietara egokitzuz, argi dugu sareari garrantzia eman eta gaur egun aurrena albistearen interneten eman behar duela kazetariak, eta ondoren osatu paperezko bertsioa; eta, argi dugu, batez ere, interaktibitatea bilatu ezean jai dutela Interneteko atariak».

EKTko Joanmari Larrartek ere www.hitza.info aurretik egindako bidearekin eta lanarekin lotu zuen. Larrarteren hitzetan, «apirilaren amaieran, EKTk 5 urte egingo ditu, eta *Berria*-k beste 5 ekainean. Era berean, aurten beteko dira lehen HITZA kaleratu zenetik 5 urte.

Indarrak batzearen beharra

Ildo horretan, bidean indarrak batzearen beharra ere nabarmendu zuen EKTko kontseilari ordezkarriak: «Zazpi HITZA ari dira gaur egun tokiko informazioa zabalitzen eta 102 herritara iristen dira. Dudarik gabe, hau ere ezinezkoa izango zatekeen EKTk zein herri eta eskualdeetako hainbat aldizkari indarrak bildu eta egunkariaren bidea hartzea erabaki ez balute».

Larrarteren ustez, «hauxe da bost urte hauetako ikaspenik positiboa: indarrak batzen baldin baditugu gaitasuna dugula proiektu berriak egiteko, proiektu indartsuak garatzeko eta ordura arte pentsatu gabeko gauzak egiteko. Hitzetik hortzera darabilgun elkarlanaren kontzeptua praktikara eramaten ahalegindugara eta gure aurrean ditugu fruituak. Horregatik, atari honek, ahal den neurrian, saiatu behar du Hitzez gaineko beste hedabideekin lan egiten eta toki informazioaren atari nazionalizatzen. Elkarlanak indartu egingo gaitu».

HITZA kanala Euskaltubean

Aurkezpen ekitaldian izan zen Euskaltube webgunearen sortzaile eta kudeatzaile den Haritz Rodriguezez ere. Bere hitzetan, «Dudarrik gabe, herri informazioaren leihoak Euskaltube atariari egingo dion ekarpena oso garrantzitsua izango da, euskarazko edukiak gero eta gehiago sortze bidean, baita ikus-entzunezkoei dagokienean ere».

Are gehiago herriz-herriko informazioak egun duen indarra kontuan izanda. Ziur gaude harreara ezin hobe izango dutela www.hitza.info nahiz euskaltube.com guneetan ikusgai egongo diren bideok».

Beti nahi jatetxea

Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak... *Jatetxea*

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Euskarazko Komunikazio Taldeak arduradunak behar ditu MARKETIN eta KUDEAKETA sailletarako (erref.: o8-imk)

Eskatzen da:

- Marketin eta Enpresa Kudeaketa arloko unibertsitate ikasketak.
- Kalkulu orriaren eta datu base programari informatikoen ezagutza.
- EGA edo balioakide den euskara maila.

Kontuan hartuko da:

- Marketin eta kudeaketa lanetan izandako eskarmentua.
- Talde gidaritzan esperientzia.
- Harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.

Eskaintzen da:

- Etorrizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoainean.

Interesa dutenek bidali curriculumara, martxoaren 19a baino lehen, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: gizabaliabideak@jarduna.net

TXOTX

Urbartarte

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Laja

Arkolla auzoa, 33 (www.lajajerretegia.com)
Tel.: 943 646 309 (info@lajajerretegia.com) Hondarribi

Lindurrenborda

Nabaz auzoa
Tel.: 948 637 212 Lesaka

Ola

Meaka auzoa, 102
Tel.: 943 623 130 Irun

Aduriz

Aranedef bidea, 28. Iturriotz auzoa
Tel.: 943 494 353 Oiartzun

Egi Luze

Zamalbide auzoa
Tel.: 943 523 905 Errenteria

Txopinondo

Sagamotegia bidea, Lan Zelai (txopinondo@wanadoo.fr)
Tel.: 559 546 234 Azkaine

Bordatto

Bordatto etxaldea
Tel.: 559 491 822 Jatsu

Donosti

Zamalbide, 8
Tel.: 943 526 041 Errenteria

Txindurri Iturri

Mendari auzoa (www.txindurri.com - txindurri@txindurri.com)
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 Itziar

Arratzain

Arratzain Zahar baserria (www.agroturismoarratzain.com)
Tel.: 943 366 663 (info@agroturismoarratzain.com) Usurbil

Begiristain

Iturrioz baserria
Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta

Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A (www.isastegisagardotegia.com)
Tel.: 943 652 964 (isastegi@isastegisagardotegia.com) Tolosa

Sarasola

Bebailara auzoa
Tel.: 943 690 283 Asteasu

Zabala

Garagartza baserria (www.rzabala.com)
Tel.: 943 690 774 (info@rzabala.com) Aduna

Otazu

Otazu baserria
Tel.: 943 670 044 Leaburu

Eguzkitza

Eguzkitza baserria - Usabal auzoa, 35
Tel.: 660 654 317 Tolosa

Erreka

Erreka auzoa
Tel.: 948 510 625 Leiza

Elutxeta

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 Urnieta

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

Otsua-enea

Osiña auzoa
Tel.: 943 556 894 Hernani

Iparragirre

Osiña auzoa www.iparragirre.com
Tel.: 943 550 328 Hernani

Rezola

Ipintza baserria - Santio Zaharra - rezolasagardotegia@euskalerrria.org
Tel.: 943 556 637 Astigarraga

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria www.gartziategi.com
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com
Tel.: 943 333 333 info@sidreriaakelenea.com Astigarraga

Gurutzeta

Oialume bidea 63 (sarrera Ergobia auzotik) gurutzeta@gurtzeta.com
Tel.: 943 552 242 www.gurutzeta.com Astigarraga



Otsoaren larruaren atzetik

AIZTONDO ■ Erribea Institutua Euskal Astearen baitan guztiz murgilduta dago. Atzokoan, besteak beste, Koldo Amestoy ipuin kontalariaren saioa entzun ahal izan zuten ikasleek. Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean izan ziren emanaldiak eta bertan Amestoyk otsoaren inguruko ipuinak kontatu zituen. I. GARCIA

Laburrak

Gaur, Ñañarri-Irura I. Rallysprintari buruz bilera

AMEZKETA ■ Kilometroak 2008 egitasmoaren baitan urtean zehar antolatzen diren ekitaldiekin jarraituz, apirilaren 26an egingo da Ñañarri-Irura I. Rallysprinta. Gaur bilera informatiboa egingo dute ekitaldi horri buruz Amezketa-ko liburategian, 19:00etan.

Aparteko osoko bilkura deitu dute biharko

TOLOSA ■ Aparteko osoko bilkura egingo dute bihar 08:00etan. Ondorengo izango da aztertuko den gaia: ondasunen erabilerearen edo zerbitzu publikoaren desafektazioa, ondare bezala kalifikatzeko; eta haiek Tolargi, SLri lagatzea finantza errentamenduan.

Zenbakia

75

■ Urte. Xabier Lizardi idazle tolosarra hil zela 75 urte bete ziren atzo.

Joxe Arregi plazako 24 etxebizitza zozketatuko dira hilaren 29an

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak eta Etorlur elkarteak herriko Joxe Arregi plazan egin asmo diren 30 etxebizitza babestuetariko 24 zozketatuko ditu hilaren 29an. Etxebizitza hauek 75 urterako azalera-eskubide erregimenekoak dira. Zozketa 09:30ean egingo dute Atxulondo kultur etxean.

Aipatu sustapen hau foru proiektu handiago baten barruan sartzen da; izan ere, proiektu horrek lehen fase batean 42 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du, horietarik 30 babesturikoak izanik. Etxebizitza hauek Joxe Arregi plazan eraikiko dira bi bloketan banatuta eta gune horretako irudia erabait aldatuko da aurreikusitako urbanizazio lanak amaitutakoan.

Babesturiko etxebizitzak bat, bi edo hiru gelakoak izango dira, eta guztiek trastelekua eta garajea izango dute. Etxebizitza guztien erdiak Zizurkilgo erroldaturiko bizilagunentzat erreserbatuko dira eta gainerako % 50a Gipuzkoako lurraldean bizi direnentzat.



Ikuskizuna perkusiolarien eta dantzarien arteko joko bat da. HITZA

'Monkeys' ikuskizunarekin, dantza, musika eta antzerkia

Villabona ■ Tapeplas talde kataluniarrak egingo duen emanaldia 22:30ean izango da, bihar, Gurea aretoan.

IMANOL GARCIA

Bartzelonako Tapeplas taldeak *Monkeys* ikuskizuna emango du bihar, 22:30ean, Gurea aretoan. Taldeko zuzendari, koreografoa eta dantzari den Sharon Lavyk azaltzen duenez, ikuskizuna «dantza, musika eta antzerkiaren arteko topagunea da». Sarrerak 7 euro balio ditu, 5 Gazte Txartelarekin erosiz gero.

Tap dance izena ematen diote beraien estiloari. «Musika eta

erritmoa antzerki kontzeptu berriarekin bateratuz, konpainiaren estiloak mugimendua eta soinua bateratzen ditu lengoia bisual, magiko eta espresiboan», dio Lavyk. Erritmoari ematen diote garrantzia: «Erritmoa lengoia unibertsala da. Espresiorako tresna berezia, Mediterraneoko, Europako eta Ekialde Hurbileko eraginak jasotzen ditu gurean».

Perkusioa gorputzarekin

Ez da ohikoa izaten horrelako emanaldiak ikusteko aukera egotea Gurea aretoan. Lavyk nabarmentzen du ikuskizunaren ardatza erritmoa dela eta horrekin «edozein kultura zein adineko pertsonen egin dezakete bat». Dantza «komunikatiboa eta ener-

gikoa» dela zehazten du Tapeplas konpainiako zuzendariak.

Dantza mota ugari egiten dituzte, horien artean klakea. Ez da, baina, Fred Astaire eta Ginger Rogers dantzariak egiten zutena. «Askoz irekiagoa da, gaurkotua», dio Lavyk. Gainera, ez dute bakarrik perkusioa egiten zapatekin, baita gorputzeko beste atal batzuekin ere. Perkusioak garrantzia handia du konpainia honen emanaldietan. Dantzariak egiten duten gain, hainbat danbor mota daude eta zuzenean jotzen dituzte.

Ikuskizunak *Monkeys* izena jarri zioten, hitzak bera energiaren isla delako. «Ikuskizuna joko bat bezala da, erritmo ezberdinekin. Perkusiolarien eta dantzarien arteko joko bat bihurtzen da».



Mota ezberdinetako danborrak erabiltzen dituzte zuzenean jotzeko. HITZA

informazioa
h
i

Bete itzazu urteak hitzarekin

Harpidetza eskaintza berezia

HITZAren harpidedun egin zaitez martxoan, eta bi opari hauetako bat jasoko duzu.



Kultura » Tolosa
Gourmetek Eusko
Labeldun Arkumearen
jaia antolatu du datozen
egunetarako.

ESTI EZEIZA

Zerkausia, luxuzko jatetxe bilakatu da beste behin ere. Eusko labela duen arkumea izango da oraingoan osagai nagusia. Tolosa Gourmetek antolatutako jaialdi honetan jaki hau izango baita protagonista. Oraingoan ere, Divinus Catering eta Urkaizkorekin batera Tolosako jatetxe nagusiak arduratuko dira sukaldatze eta zerbitzatzeko lanaz.

Ekimenari hilaren 19an emango diote hasiera, eta 23ra arte luzatuko da. 40 euroren truke, bertan eskainiko diren menu ezberdinak dastatu ahal izango dituzte bisitariak. Bertaratu nahi duenak egin ditzake dagoeneko erreserbak. Honetarako 943 69 74 13 telefono zenbakira deitzea besterik ez dute interesatuek, edo ondorengo helbide elektronikora mezu bat bidali: tour@tolosaldea.net.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landa Ingurunearen Garapeneko departamentua, Kalitatea Fundazioa eta Urkaiko Kooperatibaren izan dira ekimen honen laguntzaileak. Hori dela eta, sail hauetako ordezkariak atzo Donostian izan ziren ekimenaren aurkezpen ekitaldian. Bertan, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak aipatu zuen bezala, «2006an abiarazi genuen Tolosa Gourmet, eta orduko arrakastak bide bat markatzen lagundu zigun». Orain, «gastronomiaren inguruan zeresan handia dagola» baieztatu eta gero, eta arkumea, Tolosa nahiz Euskal Herriarekin lotura handia duen jakia delako», honen inguruko jaia antolatzea erabaki dutela azaldu zuen Bildarratzek.

Tolosa aspalditik izan da inguruko herrien zentrua, non arkumea produktu garrantzitsua izan den. XVI. mende hasieran ere Baxe Nafarroatik ekarritako ahari eta arkumeak saltzen ziren herriko merkatuan. Tolosa Gourmet-en ekimen berri honekin eta arkume menu desberdinen bitartez, zaporea eta osasun mundua aurkitzeko aukera izango da.

Hernalde, Astelena, Botarri,



lax tortila erraldoi bat prestatu zuten Aste Santuetan, aurten berriz, arkume menestra sukaldatuko dute. HITZA

Aste Santu hauetan, labeldun bildotsa errege

Fronton, Larrea, Sausta, Iturri Goxo eta Iriarte Tolosaldeko jatetxe ospetsuenek, Divinus Catering eta Urkaiko Kooperatibarekin batera, menu ezberdinak presatatu dituzte. Bazkari bakoitzean 200 lagunetik gora bildu ahal izango dira.

Bestaren baitan, ekitaldi ugari
Otorduez gain, izango da zer egin eta ikusirik datozen egunetan Tolosan. Eusko Labeldun Arkumearen Jaiaren baitan, euskal produktonekin nahiz kulturarekin lotura duten hainbat jarduerak eramango dira aurrera. Horien ar-

tean, eusko labeldun arkume haragiz egindako 1.200 pintxotik gora dastatzeko aukera izango da euro baten truke. Hau hilaren 20an eta 23an izango da. Honetarako, Eusko Labeldun 15 arkume jendaurrean prestatuko dituen erretge handi bihurtuko da Trianguloa. Ho-

irez gain, Zaldibiako Pedro Arruabarrena eta Karmele Aduriz artisauek latxa ardiaren artilea nola landu erakutsiko dute asteazkenean, hilaren 19an. Honez gain, 50 arkume kilotik gora eta beste 50 kilo barazki izango dituen menestra erraldoi prestatuko dute, ikuskaitzaile lanetan Martin Berasategi ariko delarik.

Eusko labela duen arkumea

Eusko labela duen arkumea azaro eta maiatza bitartean jaten da normalean. Mendian oso ondo egokitu-tuz, duela 8.000 urtetik gora neguko hilabeteak ibarretan ematen dituzten Euskal Herriko Katxa eta Karranzana delako bertako arrazako arkumeak dira hauek.

Arkume guztiak hazten dira era tradizionalen. Bost eta zortzi kilo dauzkaten arte, 35 egunez amaren esnez elikatzen dira soilik. Baimendutako artzain erregistroa, arkumeen banakako identifikazioa eta geografia eta genetika jatorriaren kontroletik hiltze gain, izugarriko kontrola jarraitzen du Labelaren bermeak. Hortaz arduratzen da Kalitate fundazioa. Bertako kide den Iñaki Isasik luzatutako datuen arabera, «azken urten 28.500 labeldun bildots inguru hil zituzten, eta 100 artzain gehitu dira beraien proiektura.



Arkume jarriko dute. HITZA

» **MENUAK**

Martxoak 19, asteazkena

■ Jabugo urdaiazpiko gurinezko pika. Otarrainxa eta onddoen entsalada epela. Eusko Labeldun arkumearen errota eta hankak denboraldiko barazkiekin salteatuak. Mitxoleta hostorea bakailao eta txangurroarekin. Eusko Labeldun arkumearen besoa melatza eztiarekin errea patata pure krematsu eta tipulinarekin. Kafea

Martxoak 20, osteguna

■ Letxeritak, shiitake eta fruitu le-

horren ozpin-olio entsalada epela. Eusko Labeldun arkumearen garunak Bizkaitar saltsarekin arrautzetatuak eta Gernikako piperrekin. Eusko Labeldun arkumea burrunzti erara entsaladarekin. Gazta, menbrilao eta intxaurrek. Kafea.

Martxoak 21, ostirala

■ Jabugo urdaiazpiko gurinezko pika. Eusko Labeldun letxeriten entsalada epela eta giltzurrunen ozpin-olioa jerezera. Barazki ravioliak, Eusko Labeldun arkume-

aren hankak eta onddoak. Zapoa ardo beltz urrituz egindako otarrainxa kremarekin Eusko Labeldun arkumearen krepetxoa barazki eta pinaziekin. Arrautza habia koko eta pasio frutekin. Kafea.

Martxoak 22, larunbata

■ Jabugo urdaiazpiko gurinezko pika. Otarraintxo eta onddoen entsalada epela. Eusko Labeldun arkumearen errota eta hankak denboraldiko barazkiekin salteatuak. Mitxoleta hostorea bakailao eta

txangurroarekin. Eusko Labeldun arkumearen besoa melaza eztiarekin errea patata pure krematsu eta tipulinarekin. Gorosti tarta. Kafea.

Martxoak 23, igandea

■ Letxeritak, shiitake eta fruitu lehorren ozpin-olio entsalada epela. Eusko Labeldun arkumearen garunak Bizkaitar saltsarekin arrautzetatuak eta Gernikako piperrekin. Eusko labeldun arkumea burrunzti erara. Gazta, menbrilao eta intxaurrekin.

txokoa **h**

sarrera pareta
zozketan

Irabazlea:

o Juan Antonio Iraeta (Ikaztegieta)

Martxoak 14, ostirala • 20:30ean
Tolosako Leidorren

Tolosako Orfeoa
Orfeón de Tolosa

aste
santuko
Kontzertua



HITZAren harpidedunentzat abantailak

sarrerak leihatilan bertan izango dituzu

Unai Onsaloren txapelak Berriako porrota leundu du

Pilota » Aurrera-Saiazkoek hainbat final irabazi dituzte baina Berrian ez dute jarraituko. Zazpi-Isturrik, jarraitzeko aukera dute.

NEREA URBIZU

Euskadiko Kluben Txapelketako ohorezko senior mailan aritu du Unai Onsalore, eta finala irabazi egin zuen gazteak, «erraz», gainera: 22-7. Aretako partidaren «oso ondo arituz, hasiera-hasieratik».

Aurrera-Saiazko pilotariak beste final bat ere eskuratu dute: Doneztebeko Txapelketa, hain zuzen ere. Bertan Renobales-E. Galarraga aritu ziren, eta 22-7 irabazi zuten Irigoien-Iparragirren aurka. Alegiarra, Galarragarekin batera «ederki» aritu ziren.

Berria Txapelketan kanporatuak izan dira, baina, bi final hauek zaporea gozatu egin die Aurrera-Saiazkoek. Izan ere, Huarteko arerioak gogorrek zirela bazekiten, eta emaitzak hauek izan ziren: 11-22; 13-22 eta 16-22, hirurak galduta, beraz. Azken partida izan zen onena, Onsalore-Arraztoarekin, baina hasi orduko bazekiten ia-ia, irabazita ere ez zutela pasatzeko aukerarik izango, Huartek bi tanto besterik ez baitzuten behar.

Zazpi-Isturri Berrian

Erniope Aurrera-Saiazko kanporatu zuen otsailan, Beotibarren. Baina oraindik itxaropena badago

eskualdeko beste pilota eskola indartsu batekin: Amezketako Zazpi-Isturriekin, hain zuzen.

Etzi ariko dira amezketarrak, 16:30ean, Zugarralderen aurka. Nafarrek «oso talde ona daukate», eta gainera Arbizun jokatuko dute, baina, Zazpi-Isturrik V. Berria Txapelketan indartsu dagoela erakutsi du: aurreko kanporaketan hiru partidak irabazi zituen baka-

Gaur ohorezko mailako promozioan hasiko dira Amezketako Zazpi-Isturriko pilotariak

rra izan zen, eta arerioa (Igorre) puntu gutxienean utzi zuen, 39rekin, hain zuzen. Gallurralde-Arratibel Sukia-Arzelus eta Elurbe-Le Garreta izan ziren pilotariak.

Etzi irabaziz gero, finalerdian izango dira, eta hurrengo arerioa Adiskide edo Oizpe izango litzateke: baina hori igandean erabakiko da. Hala ere, Xalton Zabalak esan bezala, «gure helburua lehenengo kanporaketa pasatzea izan da, eta lortu dugu».

GRAVN Txapelketan ere bai

Gure pilotariak GRAVN Txapelketan ariko dira asteburu honetatik aurrera: Gipuzkoa, Errioxa, Bizkaia eta Nafarroa hartzen ditu eta lurralde bakoitzeko txapelidunen arteko lehiaketa da. Aurrera Saiazko pilotariak eskolako 22 urte azpiko Senperena eta Koldo Galarraga

ariko dira, eskuz banaka. Derion etzi, 16:00etan Bizkaikoan aurka ariko dira. Zazpi-Isturriko senior mailako bikotea ariko da GRAVNen, han ere, Derion. Elurbe-Jauregi bikotea aritu behar zen hasiera batean, baina Elurbek beste partida batzuk dituen, ez dago argi zein joango den bere ordez.

Udaberri Txapelketa

Aurrera-Saiazkoak bihar eta etzi Ibarren ariko dira. Bihar 19:30etik aurrerakadeteen mailan eta seniorrrak. Etzi, berriz, 11:00etan senior mailakoa izango da.

Zazpi-Isturrikoek etzi, Amezketan 12:00etan Udaberri Txapelketako Manterola-Otegi jubenelek jokatu dute Azpeitiaren kontra. Alkizan igandean jokatu dute, Gaztañaga-Gallurralde, alegia.

Bestalde, gaur bertan Ohorezko mailako promozioan hasiko dira 20:00etan Amezketan, Zazpi-Isturrikoak. Arerioak, Galdakakoak izango dira.

Teledonosti Txapelketan ere ari dira, eta bihar Sukia ariko da; igandean, berriz, Ropon 11:30ean. Hasi berria da txapelketa, eta finalerako oraindik asko falta da.

Zizurren finalak daukate

Zizurra joango dira Amezketatik hiru mutiko, Lau T'erdiko txapelketan jokatzera, txapela ekartzeko saiakera egitera: Jokin Altuna (Ikaztegieta Larreauren aurka), Erik Jaka 13 urtekoetan eta Joseba Gallurralde, 14 urtekoetan.

Laburrak

Oialde elkarteko itxaron zerrenda osatzeko epea

LEITZA • Oialde elkarteko itxaron zerrenda osatzeko epea zabaldu berri du Leitzan. Oialde elkarteak azken eguna apirilaren 15a jarri du. Oialdeko postontzian utzi beharreko datuak hauek dira: izen-abi-zenak, helbidea eta telefono zenbaki bat. Horrek ez du esan nahi izena ematen duena zuzenean bazkide izatea pasako denik, itxaron-zerrendan egonen dela esan nahi du.

Ur zerbitzuei buruzko bilera bihar izango da

ALBIZTUR • Bihar, Albizturko udalerekin ur zerbitzuei buruzko bilera izango da, 21:30ean. Batzarrera joateko deia egiten diete Udalaren bitartez ur zerbitzuek ez duten baserriar guztiak. Bertan, gaur egungo horniduraren inguruan eta aurrera begira egin beharreko aldaketetaz hitz egingo dute. Izan ere, askok oraindik ur-biltegi pribatuak dituzte.

Aste Santuko filmetarako abonoak salgai daude

TOLOSA • Tolosako Leidorren Aste Santuan film asko dago ikusteko eta abonoak hartzeko aukera dago hauetarako, edozein saiotarako. 5 film ek 7 euro balio du. Arratsaldeko saiotarako 4 film 5 euro. Gaueko saiotarako 5 film 5 euro. Abonoen salmenta gaur 17:00etatik 21:00etara edo bihar 11:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 19:00etara. (Leidorreko leihatilan).

Elkartasun kanpainari buruz, gaur, Hirukiden

TOLOSA • Urtero bezala, Hirukide ikastetxean Elkartasun kanpainari ari dira burutzen. Aurten Filipinetan ikastetxe bat berreraikitzea izango dute helburu. Hala, bertako proiektua gurasoei azaltzeko Filipinetatik etorritako eskolapio bat izango da gaur Hirukide Jesuitinetan, 18:30ean. Kontzertu bat ere izango da, eta Filipinekin bideo konferentzia ere egingo dute.

Gaur, herriari buruzko bigarren liburuaren aurkezpena izango da

Amezketari » Oterminen 'Amezketari, un largo y tortuoso camino'-ren aurkezpena herriar guztiak daude gonbidatuta.

N. URBIZU

Amezketan gaur, Amezketari buruzko bigarren liburuaren aurkezpena izango da herriarrentzat. Jose Mari Oterminek egindakoa da eta kasu honetan gaztelaraz egingo du.

20:00etan Udaletxeko goiko ganbaran pintxoak izango dira gerturatzen diren guztiak eta Feli Etxeberria ere bertan izango da, liburuaren aurkezpena egingo.

Liburua Amezketari buruzko bigarren alea da, aurrekoan euskaraz eginiko lana zen eta oraingoan gaztelarazkoa da: *Amezketari, un largo y tortuoso camino*, hain zuzen.

Irakurleak hainbat bitxikeria topatu ditu liburu honetan, baina zehaztapenak eta azalpenak Oterminek eta Etxeberriak emango dituzte. Herriar guztiak daude gonbidatuta.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. Interesatuak deitu: 665 70 86 35.

LANA

■ **Etxelanak.** Emakume euskaldun bat behar du etxeko lanak egiteko eta adineko emakume bat zaintzeko. Alegian. Deitu: 651 70 42 19.

■ **Tabernaria.** Neska euskalduna behar da Irurako tabernan lana egiteko. 943 69 26 32.

BESTEAK

■ **Harremanak.** 40 urteko mutila, jatorra eta langilea. Neska bat ezagutu nahi nuke. 638 89 72 96.



Eszerrean, Renobales Galarragarekin, Donezteben. Eskuinean, Onsalore urdinez, finala irabazi ondoren. P. RENOBALÉS/HITZA

Donostian dagoen enpresa batek KOMERTZIALA BEHAR DU Donostia aldean aritzeko

Erreferentzia: 08-IHK

Eskaintzen da:

- Egun erdiko kontratua.
- Soldata interesgarria, finakoak eta komisioek osatuta.
- Beste lan komertzialekin bateragarria.

Eskatzten da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Gida baimena eta autoa izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali, martxoaren 18 baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA. Ez ahaztu erreferentzia zehatzea.

Euskarazko Komunikazio Taldeak arduradunak behar ditu MARKETIN eta KUDEAKETA sailtarako (erref.: o8-ikm)

Eskatzten da:

- Marketin eta Enpresa Kudeaketa arloko unibertsitate ikasketak.
- Kalkulu orriaren eta datu base programa informatikoen ezagutza.
- EGA edo balioidea den euskarara maila.

Kontuan hartuko da:

- Marketin eta kudeaketa lanetan izandako eskarmentua.
- Talde gidaritzan esperientzia.
- Harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.

Kontuan hartuko da:

- Etorrizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoainean.

Interesa dutenek bidali curriculum, martxoaren 19a baino lehen, erreferentzia zehatuz, helbide honetara: gizabaliabideak@jarduna.net

Xurdirin ipotxarekin beste behin gozatzeko aukera paregabea, etzi

Leitza » Oraingoan azkeneko lanean bildutako abestien kontzertua eskainiko dute, koreografia baten laguntzarekin.

NAIARA GARZIA

Larunbatean, 18:00etan, Leitzako kiroldegian Xurdirin ipotx urdinaren kontzertua izanen da ikusgai. Sointek Produksio etxeko Sonia Ezkerrak azaldu duenez, «euskaraz eta haurrei zuzendutako ikuskizun honek 2 formatu ditu, alde batetik antzerkia (honen 2 denboraldiak Leitzan bertan estreinatutakoak) eta kontzertua, larunbat

honetan arratsaldeko 18:00etan Leitzako kiroldegian eskainiko duguna».

Xurdirin ipotx alai

Xurdirin ipotx urdin bat da eta alaitasunaren basoan bizi da bere lau lagunekin: Zirri, Borro, dofasol Jauna eta Haizeder. «Antzerkiaren denboraldi bakoitzeko disko bat kaleratzen dugu», dio Sonia Ezkerrak. Lan hauen honen ondorioz sortutako kontzertuak dira beraz. «Azkeneko antzerkian bildutako kanta entzun ahal izanen dira larunbat honetan». Ikuskizun honetan, beraz, musikak oinarriko garrantzia izanen du eta horren gainean dantza eta argiztapen



Xurdirin kontzertua kiroldegian izanen da, larunbatean, 18:00etan. HITZA

muntai ikusgarriak ikusi ahal dira.

«Ikuskizunak ia ordu bete irauten du, musikaz beterik dago», dio

Ezkerrak. «Gainera, dantza ikusgarriak, eta argiztapen muntai izugarria ere baditu. Haurrei zuzenduriko ikuskizunen artean ar-

giztapen eta soinu aldetik muntai handia darama».

Eskainiko dituzten kantei dago kienez nahiz eta ikuskizuna orokorrean haurrei zuzenduta egon, gurasoengan pentsatuz ere prestatu dituzte.

Sointek, Xurdirin sorburu

Xurdirin eta bere lagunen istorioak, Sointek Produksioak ekoizpen etxetik sortzen dira, horren buru, Joxemari Gorostegi da, *Tomson* bezala ezagutzen du jendeak. Berak idazten ditu bai gidioak, eta abesti guztiak ere berak konposatzen ditu.

Esker ona

Ezkerrak Leitzari esker onak eman nahi izan dizkio, beti herriak erakutsi duen jarrera adeitsuarengatik. «Leitzako herriari eman dituzten laguntzagatik esker mila ematea gustatuko litzaidake, eta bereziki Leitzako Udalar, laguntza eske joan garen bakoitzean, atek beti zabalik izan ditugulako, Xurdirin ikuskizun bat estreinatutako bakoitzean. Eta leitzar guztiak orokorrean jaso dugun arreta adeitsuarengatik».

Igandean Zuberoara joateko izenemate epea gaur amaitzen da

Aisia » Barkoxeko Ahargora joateaz gain, arratsaldean Arrokiagako maskarada ikusteko aukera izanen dute

N. GARZIA

Iganderako Zuberoara irteera antolatuta dute Mendibil Mendi Taldekoek eta Aurrerak, Barkoxeko Ahargora, hain zuzen ere.

3 ordu eskasetako ibilaldia izanen da igandekoa eta arratsaldean, 15:00etan, Arrokiagako maskarada ikusteko aukera ere izanen dute egun pasa honetan izena ematen dutenek. Izena Astiz eta Maimur liburudendetan, eta Erleta eskolan eman daiteke, eta epea gaur bertan amaitzen da.

Igandean 07:30ean aterako dira Zortzikotik, eta 2 ordu eskasetan



Azkeneko ibilaldia Ipulñora egin zuten eta jende ugari bildu zen. M. ILLARREGI

iritsiko dira bertara. Leitzara, berriaz, 19:00etarako itzuliko direla aurreikusitako dute.

Mendibil taldetik azaldu dutenez, «seigarren mailako umeek

gurasoekin joan beharko dute eta Nafarroako Federakuntzan federatuta ez dagoenak zerbait gertatuz gero bere gain hartuko du ardurak».

'La flauta magica' filmarekin amaituko da zinema denboraldia

Zinema » Mozartek sortutako operan oinarritzen da Kenneth Branaghek egindako moldaketa hau.

N. GARZIA

La flauta magica filma, hori da zinema denboraldiari amaiera emateko aukera dutena.

Lehenengo mundu gerratea iristear dagoenean, Taminok bidaia arriskutsu bat eginen du, maitasuna, argia eta bakearen bila. Iluntasunean, heriotzean eta suntsipenean murgilduriko mundu batetik ihesi, bere helburua eta hori guztia gaunditzeko bidea Pamina askatzea izanen da, Gauaren Erreginaren alaba xarmantgarria,

Sarastro izeneko pertsonai gaizto batek bahituta baitauka.

Musikaz beteriko abentura honetan bi maitaleen patuak milioika pertsonen etorkizunean ere zeri-kusia izanen du.

Branagh, Bergman eta Mozart

La flauta magica Mozartek sortutako opera bat da, bizirik zegoela berak oholatza gainean antzeztuta (1791. urtean) ikusi zuen azkenekoa, 2 hilabete beranduago hil baitzen. Asteburuan eskainiko duten bertsoa Kenneth Branagh ingelesak zuzendutakoa da, baina 42 urte beranduago beste zuzendari batek opera honen zinemarako lehenengo moldaketa egin zuen, 1974. urtean: Ingmar Bergmanek, hain zuzen ere. Zenbait sarietarako izendatu zuten bertso hau.

U Urteurrenak

JOAKIN BALERDI ERAUSKIN

(III. urteurrena)

Beti gogoan

Etxekoak

Meza igandean, hilak 16, 11:00etan izango da Tolosako San Frantzisko parrokian.



TOLOSAN
2008ko martxoaren 13an

IV. urtemuga JUAN JOXE AMENABARRO ITURRIOZ

Oroitzen zaitudanean, ama, sukaldean egoten zara mahaia bostentzat atondu, aukian eseri eta leihotik kristala lausotzen duen lurrina ezabatu gabe neguari begira eta ni —badakit— zure begien hondoan nagoela. Patioan solasean eta lagun batek: —Itolarria sentitzen diat... Zer den amaren begien egotea! (Joseba Sarrionandia)



beti maiteko zaitugu, atona ESTI, MARI, LANDER ETA JOXE



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Irura.** Zaharren Biltokiaren ohiko asanblada 17:30ean: urteko kontu balantzea, lehiaketak, irteerak, galde-erantzunak. Ondoren merienda izango da.
- **Amezketeta.** Joxe Mari Oterminek idatzitako Amezketa historia buruzko liburua aurkeztuko zaie herritarrei 20:00etan, Feli Etxeberriarekin batera.
- **Tolosa.** Amaroazko Auzo Elkartearen merkatu txikia Nikaraguako Malpaisilloko hezkuntza proiektuaren alde.
- **Anoeta.** 2008ko jaiak iragartzeko kartela egiteko lehiaketa. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira. Azken eguna, apirilaren 18a.
- **Leitza.** Oialde elkarteak itxaronzerrenda osatzeko epea ireki du. Azken eguna apirilaren 15ean izanen da. Oialdeko buzoiean utzi beharrek datuak hauek dira: izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia. Horrek ez du esan nahi izena ematen duena zuzenean bazkide izatea pasako denik, itxaronzerrendara, baizik.

Zinema

- **Tolosa.** *Lady Chatterley* filma emango dute zine-klubean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

Ikastaroak

- **Tolosa.** Paisaiari buruzko argazki tailerra. Martxoaren 31tik ekainaren 30a bitartean, astelehen eta asteazken arratsaldetan, Iñigo Royoren eskutik. Izena emateko azken eguna, martxoaren 14a, da, kultur etxean.

Irteerak

- **Tolosa.** Andorrara mendi irteera antolatu du Aste Santurako Oargik, hilak 19tik 24, Coma Pedrosa (2.942 m) eta Pic Port Vell (2.655 m). Izen-ematea, elkartearen.
- **Tolosa.** Larrea-Arantzazu mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak iganderako, Aumategigaina (1.191), Gaboño (1.175), Malgorra (1.242), Pinpil (1.279) eta Gastelulaitz (927) mendiak igoz. Izen-ematea, elkartearen (943 652789).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Nikaraguatik esker hitzak

Elkartasuna » Zabalik dago igandera arte Kultur Etxean Amaroazko Auzo Elkarateak antolatuta, Merkatu Txikia.

ERREDAKZIOA

Amaroazko Auzo Elkarateak antolatu zabalik dago Tolosako Kultur Etxean elkartasuneko Merkatu Txikia. Hain zuzen ere, igandera arte egongo da bertara joateko aukera; astegunetan 16:00etatik 20:00etara, larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta igandean 10:00etatik 14:00etara.

Egun horietan ateratako dirua Nikaraguako heziketa proiektu bat laguntzeko bideratuko dute Amaroazko Auzo Elkaratekoek aurreko urteetan bezala. Nikaraguako zonalderik txiroenean dagoen Emakume Antolatuen Zentrogaratzen eta bultzatzen ari den proiektua da diruz lagunduko dutena.

Zentro horretan ikasten arituz den Nikaraguako emakume baten esker hitzak jaso dituzte Auzo Elkaratekoek. Guadalupe Arostegui Gonzalezek tolosar guztiak eskertu nahi izan ditu emandako laguntzengatik heziketa jaso ahal izan duelako berak eta beste hainbat emakumek. «Oso gustura nago, nekazaritzaz ikasi dudana aplikatuta emaitza oso onak lortzen ari bainaiz, eta nire ametsak betetzen



Merkatu Txikira ari da jendea hurbiltzen gauzak erostera. N. LATABURU



ari direla esan dezaket», dio Arostegui.

Elkartasuneko Merkatu Txikian erosiz laguntzeaz gain, 2101 0081 1501 2441 0788 kontu korronte zenbakia bidez ere diruz lagundu daiteke.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

hitza



herri informazioaren
leihoa

dagoeneko zabalik

www.hitza.info